

## Altza

Larraitz Garmendia (finoa: 943.391267)

**G**onzalez Andresek 21 urte ditu eta Altzan bizi da. Kazetaritza ikasten ari da, laugarren mailan dago, baina halere, ez dago oso gustura ikasketekin. Nahiago du literatura idatzi. Gainera, trebea da horretan eta ederki asko erakutsi digu, Tomas Fermin de Arteta nazioarteko narrazio sariketa irabaziz.

Egia esan, Juanek txikitatik izan du harremana literaturarekin, etxean bizi duen giroak bultzatuta edo: «Hamaika urterekin "Los Cinco liburuetako marrazkiak kopiatu eta gero gure abenturak idazten genituen 150 orrietan», adierazi digu.

## Zinearen eragina


Tomas Fermin de Arteta lehiaketara 2.156 idazlan aurkeztu ziren. Haien artean, Juan gure auzokideak idatzitakoa zegoen, "Una temporada en el infierno". Ipuin hau fantastikoa da eta antzinako Greziako infernuetara bidaia egiten duen estatubatuar baten abenturak kontatzen dizkigu. Satira eta gehiegikeriak erabili ditu Juanek ipuintxo honetan eta epaimahaiak sari nagusia eman dio. Zinearen eragina nabaria da idazlan

## Beste idazle bat auzoan

Juan Gonzalez Andres altzatar gazteak Tomas Fermin de Arteta nazioarteko narrazio lehiaketa irabazi du, «Una temporada en el infierno» izenburuko ipuinarekin.

osoan, hizkuntzan, erritmoan edota pertsonaia nagusi amerikar bat aukeratzeko orduan. «Zinea asko gustatzen zait eta eragin handia du niregan. Askoetan ez naiz eragin horretaz konturatu ere egiten», dio altzatar gazteak.

Edozein sari eskuratzea pozgarria izaten da. Halere, kasu honetan berezia da, epaimahaiak 2.000tik gora idazlan artetik aukeratu baitu Juanen ipuina. «Horrez gain, Juan Manuel de Pradak duela zenbait urte sari hau lortu zuela jakin nuenean, irribarrea etorri zitzaidan ezpainetara».



Argazkia: Inanol Olegi

Juanek, kazetaritza baino askoz gehiago nahiago du literatura.

## Loiola

Zazpigarren  
San Martin Topaketak

**O**hitura bihurtu da auzoan San Martinak ospatzea. Hontza elkarte arduratuko da jai eguna antolatzeaz, eta larunbat zein igandean, azaroak 14 eta 15, zenbait ekitaldi izango dira.

## Larunbata, azaroak 14

- **13.00etan:** Odolki eta txorizo dastaketa egongo da eliz kalean. Trikitilariak ere hurbilduko dira jai giotzeko.

- **16.00etan:** Mus txapelketa egingo da Hontza elkartearen.

## Sariak:

- **Lehenengoa:** Garaikurra eta solomoa.

- **Bigarrena:** Garaikurra eta bi txuleta
- **Hirugarrena:** Ardi gazta eta bi botila ardo.
- **Laugarrena:** Kilo bat Tolosako babarrun eta bi botila ardo.

## Igandea, azaroak 15

**13.00etan:** Bertso saioa Eliza kalean; Igor Elortza eta Jon Maia izango dira.

**14.00etan:** Bertso bazkaria egingo da Hontza elkartearen. Menua: Tolosako babarrunak, Ibarako langostinoak, aza, odolki, Zaldibiko mondejo eta izozkiak. Kafea, txola eta txokorra. Hau dena 2.200 pezetaren truke.